



ESKUETAN

MIREN ETA JOXE ANGEL MUNDUATE
BEREN OSABA ZAHARRAREN
GORPUTZA GORDETZEN DUEN KUTXARI
EUSTEN, SENIDEEK LAGUNDUTA,
OLABERRIAN EGINDAKO OMENALDIAN.

1936AN FUSILATUA

Martzelo **ETXEAN DA**



 MAURO SARAVIA

Testigantza baten lorratzari segika aurkitu
dituzte frankistek 1936an hildako
Martzelo Lasa olaberritarraren hezurak, eta
83 urte geroago senideei eman dizkiete.



Miren eta Joxe Angel Munduatek historia ezagutzen zuten etxean kontatu zietelako: 1936ko abuztuaren 25ean frankistek beren osaba zahar Martzelolo Lasa Zeberio 17 urteko Olaberriko gaztea hil zuten, eta Lizarrusti inguruan lurperatu toki ezezagun batean. Zortzi hamarkada geroago, liburu batean argitaraturiko datuei tiraka, Patxi Lakuntzaren testigantza aurkitu zuen Joxe Angelek.

Patxi 6 urte zituen, Lizarrustin aita eta lagun batekin arrantzan ari zela tiro hotsak entzun eta bi morroi ikusi zituenean hilotz bat lurperatzen, errepidetik gertu, harizti baten ondoan. Haurrari etxera joateko agindu zitoten eta ihes egin zuen, baina hurrengo egunean itzuli eta adarrez estali zuen tokia animaliek gorpua ez eramateko.

FROGAK 47 KILOMETROAN

Duela bi urte, Aranzadiko teknikariak Lizarrustiko gainean elkartu ziren Joxe Angel eta Patxiarekin. 86 urte zituen lekukoak, baina ederki gogoratzen zuen hilotza lurperaturik zegoen tokia: errepidearen 47 kilometroko pago baten oinean. 2017ko urriaren 12an lehen miaketa egin zuten eremu zabal batean eta ejertzitoak 1936an erabiltzen zuen munizioko bala-zorroak aurkitu zituzten puntarik gabe, erabilita alegia. Martzeloren arrastorik ez zuten aurkitu egun horretan, baina bai testigantzarekin bat egiten zuten zantzu garbiak.

2018ko irailaren 1ean, froga zehatzak eskuan zituztela, hondeamakina batekin ekin zioten lurra mugitzeari goizeko bederatzietan: eguerdirako lehen hezur batzuk agertu ziren. Hala, eguraldia lagun, hurrengo egunean atera zuten lurpetik gorpua, erakundeetako kargu publikoak eta senideak bertan zirela. Ezin zuten sinetsi ere egin, oso zaila baitzen hezurak hor egotea.

Egun gutxira Patxi Lakuntza zendu zen, baina bere testigantzak askorako balio izan zuen: DNA frogak baieztatu zuten Lizarrustin agerturiko gorpuzkinak Martzelolo Lasa Olaberriko bizilagunarenak zirela.

BERRIZ LURPERATZEA

Egiaztapen horrekin, ekitaldi bat antolatu zuten hildakoaren sorterrian uda honen hasieran, ekainaren 30ean. Olaberriko udaletxean, dozenaka lagunuen aurrean Martzelolo Lasaren hezurak familiari eman zizkioten. Orain etxekoekin batera dago ehortzita, hilketa doilor hartatik 83 urte igaro direnean. ●

GORPUZKINAK OLABERRIAN

Ohorezko aurrekua dantzatu eta Agur Jaunak abestu zuten senide eta lagunek, hilkutxa aurrean zutela. Udaletxeko aretoa lepo bete zen.



HEZURRAK AZALERA

Patxi lakuntzak, 1936an haurra zela, ikusi zuen Martzelo Lasa nola lurperatzen zuten frankistek. Berak emandako informazioari esker, 2018ko irailean gorpuzkinak aur-

kitu zituzten lizarrustiko gainetik gertu, errepide ondoko pago handi baten oinean. Gorputza azalera ateratzeko unean, senideak eta hainbat erakunde publikotako ordezkariak izan ziren. Handik egun gu-

txira hil zen lakuntza, 86 urterekin, baina bere testigantzarekin zirkulua itxi ahal izan dute fusilatuaeren ondorengoek: "Lortu dugu isiltasuna haustea, sukalde zokoe-tatik plazara ateratzea".



ARGITARA

Duela urtebete, 2018ko urrian, eman genuen kasuaren berri hedabide honetan, asteko argazkian. Martzelo Lasaren hezurak aurkitzeak haren senideen "zauria osatzeko" balioko zuela genioen. Argazkian ikus daiteke Joxe Angel Munduate bere osabaren argazki bakarra eskuetan duela. Bada, hilabete batzuk geroago, beste argazki batek irudikatzen du historia honen azkenaurreko kapitulu: Martzelo Lasa etxean da.